



berpiztu

EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA
SUSPERTZEKO PROGRAMA (2020-2024)

*Berpiztu 2024 programaren emaitzen txostena eta
2020-2024 aldiko balantze orokorra*

2025 04 30 DOKUMENTUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*BEHAR DUGUNA EGINGO DUGU
AHALIK ETA ENPLEGU GEHIEN
MANTENTZEKO ETA GALDUTAKO
ENPLEGU GUZTIA
BERRESKURATZEKO*

(Lehendakaria. Mahai Sozioekonomikoa, 2020/05/27)



Aurkibidea

1. 2020-2024 Berpiztu Programa	4
2. 2024ko betearazpenaren balantze orokorra	13
3. 2020-2024 aldiko emaitza orokorrak	21

ERANSKINAK

1. eranskina. Berpiztu 2024: aurrekontu-betearazpenaren xehetasuna eta emaitzak	26
--	-----------

ONDORIOAK	61
------------------	-----------





1.

Berpiztu programa 2020-2024




Erantzun orokor eta partekatua euskal erakundeen artean

Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa inoiz baino garrantzitsuagoak dira une hauetan COVID-19aren pandemiaren eta, gertuago, Ukrainako gerraren ondorioz sortutako egoera konplexu eta zailari aurre egiteko; izan ere, arazoak eta zailtasun gehiago sortu dituzte enpresentzat eta pertsonentzat, eta zalantzan jarri dituzte euskal gizartearen ongizatea eta bizikaltatea.

Testuinguru aldakor horretan, 2020. urtetik dago martxan Plan hau, eta haren oinarriak bat etorri ziren Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru-Aldundien artean, ekonomia suspertzeko eta enplegua batera bultzatzeko.

Oinarri partekatu horietan oinarrituta, **Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa** onartu zuen 2020ko azaroaren 3ko Gobernu Kontseiluan, Foru-Aldundien eta eragile ekonomiko eta sozialen kontraste- eta ekarpen-prozesu baten ondoren.



Iturria: Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu Programa 2020-2024



Ortzi - muga: Aurre egin beharreko 3 trantsizio global

Euskadik hiru trantsizio hauetan laburbiltzen ditu megajoera horiek: trantsizio teknologiko-digitala, energetiko-ingurumenekoa eta sanitario-soziala. Trantsizio horiek herrialdeen, negozioen, industrien, gizarteen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna dituzte, baina enplegua sortzeko aukera ere izan daiteke, eta, horretarako, pertsona prestatuak izan behar ditugu.

 Euskadi Digitala	 Euskadi Berdea	 Euskadi Inklusiboa
TRANSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA	TRANSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA	TRANSICIÓN SOCIAL Y SANITARIA
Digitalizazioa.	Neutraltasun klimatikoa.	Osasun-sistema eta arrisku pandemikoak.
Adimen artifiziala eta Big Data.	Energia-sistemaren deskarbonizazioa.	Demografia eta zahartze osasuntsua.
Teknologia, herritarren zerbitzura.	Baliabideen eta energiaren erabilera efizientea –ekonomia zirkularra–	Migrazioa.
Automatizazioa.	Mugikortasun jasangarria eta adimenduna.	Genero-berdintasuna.
Zibersegurtasuna.	Bidezko trantsizio energetikoa.	Zainketa-eredu berriak.
Bidezko ekonomia digital eta lehiakorraren sustapena.	From farm to fork.	Gizarte- eta lurralde-kohesioa.


Iturria: Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpitzu Programa 2020-2024



"Next Generation EU" europarrarekin lerrokatutako programa

"Next Generation EU" Europako Funtsa erreferentzia-esparru globala da baliabide eta ahalegin publiko eta pribatuak Europa ekologiko, digital eta erresiliente bat eraikitzea bideratzeko, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartuko duen hazkunde jasangarri eta integratzaile baten bidez.

Euskadik jarraibide horiek partekatzen eta bere egiten ditu, Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programa definitzeko oinarri gisa, eta bere estrategiaren Ardatzen eta Europako suspertze-tresnen arteko lerrokadura ezartzen du. Horrela, Ekonomia Suspertzeko Ardatzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren filosofia eta funtsa txertatzen ditu, eta Enplegua Sortzeko Ardatzak, berriz, gizarte- eta lurralde-kohesiorako REACT-EU Programaren dimentsio handiak.



Iturria: Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpitzu Programa 2020-2024



2030 Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren programa

Euskadik bere gain hartzen du Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat egiteko konpromisoa, eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan txertatzen du. Hauek dira Estrategia honekin lotura handiena duten GJHak:

5. Genero-berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdintasunak murriztea
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua
13. Klimaren aldeko ekintza

Garapen jasangarrirako helburuek, oro har, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren esparruan, 41 jomuga, 25 plangintza-tresna, 10 legegintza-ekimen eta 39 konpromiso biltzen dituzte, eta 336 adierazlez osatutako aginte-taula bat dute.

Gainera, 3 trantsizioekin oso lotuta dauden GJHak dira:

- Trantsizio teknologiko-digitala: 8. GJHa eta 9. GJHa
- Energia- eta ingurumen-trantsizioa: 7. GJHa, 8. GJHa, 11. GJHa, 12. GJHa eta 13. GJHa
- Trantsizio soziala eta sanitarioa: 8. GJHa eta 10. GJHa



Ekonomia eta enplegua suspertzeko programa bat, 10 konpromisorekin

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak helburu zehatzak planteatzen ditu, Euskadiko **enpleguarekin, ekonomia suspertzearekin eta erresilientziarekin lotuta, eta "Next Generation EU" Funtsaren esparruan egindako Europako gomendioekin bat etorritik**. Helburuak honako alderdi hauetan zehazten dira:

1 Inbertsio publikoarekiko konpromisoa: 13.250 milioi euroko ahalegin publikoa, ekonomia suspertzeko eta enplegua dinamizatzeko.

2 Enpleguarekiko konpromisoa: langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea eta 130.000 enplegu dinamizatzea.

3 Gazteekiko konpromisoa: 25.000 gaztek baino gehiagok lehen lan-esperientzia izatea hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-programetan, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzan, enplegurako prestakuntza dualean, gazte-ekintzailertzan eta nazioarteko espezializazioan.

4 Enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa: gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murrizteko programak, zaintza erantzukideen eredu berriak garatzea, lan- eta familia-bizitza bateragarri egitea eta kontratazio-iruzurra jazartzea.

5 I+G+Brekiko konpromisoa: Inbertsio publikoa urtean % 6 handitzearen aldeko apustua, Euskadi berrikuntza-polo europar bihurtzeko eta trantsizio globalei aukeraren arabera aurre egiteko.

6 Europako estrategiarekiko konpromisoa: Europar Batasunak ezarritako eraldaketa-ardatz handiekin lerrokatuta, Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa eraikitzeko.

7 Garapen jasangarriko helburuekiko konpromisoa: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, erronka teknologikoekin eta gizarte-erronkekin zuzenean lotutako garapen jasangarriko helburuei erantzutea. Ingurumen-erronkek ere funtsezko zeregina dute energia berriztagarrietarako trantsizioa bizkortzeko, hiri-birgaitze energetikoa efizientzia energetikoko irizpideekin eta mugikortasun jasangarria, trenbidea lehentasunezko ardatz hartuta.

8 Industriarekiko konpromisoa: Industria Euskadiko ekonomiaren eraldaketaren eta berpizkundearen eragileztat hartzen da. Industria aurreratua, digitalizatua eta nazioartekotua. Industria berri inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa.

9 Enplegu publikoarekiko konpromisoa. Administrazio publikoaren egonkortasuna eta berrikuntza, informazioaren teknologia berriak eta digitalizazioa txertatuz, herritarrentzako zerbitzuen kalitatea hobetzeko.


10 Zerbitzu publikoak hobetzeko konpromisoa. Osasun- eta hezkuntza-sistemen eraldaketa fisikoa eta digitala. Osasuna, zahartzea eta zainketak ekonomia- eta enplegu-aukera-gune berriak dinamizatzeko elementuak dira.



2 ardatz egituratzaile eta zeharkako eremu bat

Ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024 BERPIZTU Programa ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko erronkei erantzun integrala emateko da, eta **bi ardatz bertikal handitan egituratzen da: «Ekonomia suspertzea» eta «Enplegua sortzea»**. Ardatz horiek 12 jarduera-politikatan hedatzen dira, eta horiek osatzen dute estrategiaren inda -aldian zehar garatu beharreko ekonomia eta enplegua suspertzeko eta estimulatzeko hainbat neurri eta tresnaren erreferentzia-esparrua. Era berean, hirugarren ardatz edo zeharkako arlo bat definitzen da, **"Enpleguaren kalitatea hobetzeari buruzkoa"**, eta hau Programaren hamahirugarren politika da.

Aurreko 12 politketan eta 60 jarduera-ildoetan, programa eta neurri guztietan, genero-ikuspegia txertatuko da, emakumeen eta gizonen abiapuntuko egoera eta behar desberdinak kontuan hartzeko.



I. ardatza - Ekonomia suspertzea

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
2. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
3. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
4. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
5. Elikagaien industria
6. Turismoaren eta Kulturaren Merkataritza eta Industria

II. ardatza - Enplegua sortzea

7. Ekintzailatza. Enpresa berriak
8. Enplegurako prestakuntza
9. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
10. Renove programak. Eraikuntza birgaitzea
11. Enplegu publikoaren eskaintza
12. Gazteen Enplegurako Talka Plana

Zeharkako arloa: Enpleguaren kalitatea hobetzea

- Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea
- Prekarizitatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)
- Laneko prebentzioa eta segurtasuna areagotzea
- Lan Ikuskaritza indartzea
- Erantzukidetasuna eta lana eta familia bateragarri egitea sustatzea
- Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarako ebaluazioa
- Elkarriketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomia bultzatzea


Iturria: Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpitzu Programa 2020-2024



13.250 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa, guztira

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak 13.250 milioi euroko (*) aurrekontu-inbertsioa du 2020-2024 aldirako. Aurrekontu hori 9.550 milioi eurokoa da, eta ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko bi ardatz nagusiei dagokie. Horiei 3.700 milioi euroko zenbatekoa gehitzen zaie, enpresa eta autonomoentzako abal gisa.


Aurrekontua honela banatzen da: 7.935 M €Ekonomia Suspertzeko Ardatzerako eta 1.615 M €Enplegua Sortzeko Ardatzerako.



(*) Oharra: 2020-2024 aldirako XII. legegaldirako inbertsio-datuak dira, legegaldia hasi zenetik aintzat hartuta. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da.



2020-2024 Berpiztu Programa (2020-11-03ko Gobernu Kontseilua)






2.

BERPIZTU 2024


Gauzatzearen balantze orokorra



2024an AURREIKUSITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2024an EGIKARITUTAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2024ko aurrekontuaren betearazpena

I. ARDATZA – EKONOMIA SUSPERTZEA

I. ardatzak (Ekonomia suspertzea) 2.277 milioi euroko aurrekontu-betearazpena izan du 2024an (emaitzen aurrerapena), hau da, I. ardatzean definitutako politiketarako hasieran egindako aurrekontu-aurreikuspenaren % 89.

I. ARDATZEKO (EKONOMIA SUSPERTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2024 (2)	2024ko exekuzioa (3)
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M €	1.093 M €	1.040 M €
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M €	625 M €	625 M €
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M €	201 M €	78 M €
4. INDUSTRIA ETA ETEak, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M €	345 M €	218 M €
5. ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M €	208 M €	233 M €
6. TURISMOAREN ETA KULTURAREN MERKATARITZA ETA INDUSTRIA	313 M €	83 M €	83 M €
I. ARDATZAREN (EKONOMIA SUSPERTZEA) GUZTIZKO PARTZIALA	7.935 M €	2.555 M €	2.277 M €
ABALAK	3.700 M €	650 M €	650 M €
I-EKONOMIA SUSPERTZEA ARDATZA, GUZTIRA	11.635 M €	3.205 M €	2.927 M €

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako kalkulaturako aurreikusitako aurrekontuen datuak (2020ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokion zatia barne).

2. oharra: 2024ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2023ko abenduaren 22an onartutako aurrekontuetatik atera dira.

3. oharra: 2024ko exekuzio-zifrak Ogasun eta Finantza Sailaren Gardena webgunean argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontua).

(*) Enpresa-partaidetek aurrekontu-estaldura bermatua dute, aztertzen ari dira eta ekitaldi honetan gauzatzea aurreikusten da.



2024ko aurrekontuaren betearazpena eta emaitzak

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

II. ardatzak (Enplegua sortzea) 401 milioi euroko aurrekontu-betearazpena izan du, aurreikusitako aurrekontuaren % 89, eta, kalkuluen arabera, **48.942** enplegu sustatzen lagundu du 2024an.

II. ARDATZEKO (ENPLEGUA) POLITIKAK	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2024ko aurreikuspena (2)		2024ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILTZA. ENPRESA BERRIAK	128 M €	10.790	38 M €	3.976	34 M €	3.539
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA (3)	342 M €	42.100	86 M €	20.056	77 M €	17.538
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577 M €	26.110	151 M €	6.036	135 M €	5.372
10. RENOVE PROGRAMAK. BIRGAIKUNTZA ERAIKUNTZA	406 M €	15.000	134 M €	4.385	119 M €	3.902
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)	-	10.720	-	2.901	-	3.949
12. GAZTEEN ENPLEGURAKO TALKA-PLANA	162 M €	25.800	41 M €	16.451	36 M €	14.642
II. ARDATZA- ENPLEGUA GUZTIRA	1.615 M €	130.520	450 M €	53.805	401 M €	48.942

1. oharra: Enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuen jatorria "210 Gainegiturak txostena - Enplegu Plana" da. 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da; ondoren sailek berrikusi eta eguneratu zuten aurreikuspen hori.

3. oharra: Hasierako 2020-2024 aurreikuspenari aplikatutako enplegurako prestakuntza-jardueretan erabilitako laneratze-tasa murriztaileagoa (% 25) izan zen, zuhurtasun-irizpidearen arabera, kudeaketa-gomendioetatik eratorritakoak baino (% 45). % 45eko laneratze-tasa hori erabili da 2021etik aurrera enpleguan izango den inpaktua kalkulatzeko (2022, 2023 eta 2024an aplikatuta), Hezkuntza Sailaren eta Lan eta Enplegu Sailaren (Lanbide) jarraibideen arabera, emaitzen benetako esperientzian oinarrituta.



2024ko beste emaitza batzuk

Enpleguak sustatzeaz gain, kalkulatu da Berpiztu Programak beste eragin eta emaitza batzuk izan dituela jarduera ekonomikoan 2024an. Horren ondorioz, 1.440 enpresa berri sortu dira (mikroETeak eta autonomo berriak barne), I+G+Bko 175 proiektu bultzatu eta finantzatu dira, eta 3.271 industria-enpresari lagundu zaie modernizatzen eta hedatzen.

ADIERAZLEAK	2020-2024 aldirako aurreikusitako emaitzak	2024an aurreikusitako BERPIZTU emaitzak	2024ko emaitzak (*)
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	1.705	1.440
Mikroekintzailatza eta autonomo berriak	5.000	1.430	1.273
Enpresa berritzaile berriak	1.000	275	167
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	175	175
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (**)	600	175	175
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	2.200	3.271
Nazioartekotzeko	1.500	350	418
Modernizatze eta hedatzeko	1.500	350	918
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250	951
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450	131
Produktu berriak garatzeko	4.000	800	853

(*) 2024ko ETEen Planaren emaitzen bidez bildutako informazioan oinarrituta kalkulatu dira datuak. Emaitza horiek sail arduradunek igorri dituzte. Mikroekintzailatza berrien kasuan, emaitzak aurreikusitako aurrekontuaren gaineko aurrekontu-betearazpenaren arabera kalkulatu dira (% 89).

(**) 2020-2024 aldirako hasierako aurreikuspenak eguneratu dira, Europako I+G+b arloko 600 proiektuekin, kontuan hartuta Horizonte Europa ikerketa-programa berria abian jartzeko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak.



Ekonomia eta enplegua suspertzeko ardatzek konpromiso inplizitu bat dakarte berekin, galdutako enplegua berreskuratzeko, dagoena finkatzeko eta haren kalitatea hobetzeko. Konpromiso hori Berpiztu Programa osoaren zeharkako eremu batean islatzen da: 3. ardatza. Enpleguaren kalitatea eta genero-berdintasuna. Konpromiso horretatik abiatuta, 2021ean, **2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia onartu zen**, gizarte-eragileekin eta Legebiltzarreko taldeekin batera lan egiteko prozesu batean. Enpleguaren aldeko itun kalitatezko eta inklusibo bat proposatzen du, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean laguntzeko. 2024an, ekintza hauek nabarmentzen dira:

Emakumeen eta gizonen berdintasuna

2024an, Eusko Jaurlaritzak, Emakunderen eta Euskal Kirol Federazioen Batasunaren (EKFB) bidez, «Maskulinitateak, Berdintasuna eta Kirol Praktika» prestakuntza abiarazi du, Gizonduz programaren eta Emakunderen Berdintasunerako Online Eskolaren barruan. Ekimen hori aisialdiko entrenatzaileei, begiraleei eta irakasleei zuzenduta dago, bai eta kirol-klubetako kideei ere, kirolaren eremuan genero-berdintasuna sustatzeko. Era berean, laguntza-programa bat jarri da abian, tradizioz maskulinizatuta egon diren lanbideetan emakume langabeen prestakuntza eta kontratazioa sustatzen duten proiektuak finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen 82/2016 Dekretuaren esparruan. Ekintza horien helburua gizarte berdinzaleago baterantz aurrera egitea da, kirolean zein lan-merkatuan genero-berdintasuna sustatuz.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztea

2024an, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murrizteko neurriak bultzatzen jarraitu du. Ildo horretan, Elkarriketa Sozialaren Mahaiko genero-berdintasuneko taldeak lanean jarraitzen du soldata-desberdintasunari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzaren estrategia ezartzeko, 2021-2025 ekintza-planean ezarritako helburuetarantz aurrera eginez. Gainera, Emakundek berdintasunarekin eta negoziazio kolektiboarekin lotutako azterlanak egiten jarraitu du, eta Lan Sailburuordetzak hitzarmen kolektiboak eguneratzen jarraitzen du, ekitatea indartuko duten irizpideak txertatzeko. Ekintza horiek sendotu egiten dute Eusko Jaurlaritzak soldata-arrakala murrizteko eta lan-eremuan genero-berdintasuna sustatzeko duen konpromisoa.

Prekarietatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)

Lan Ikuskaritzak kontrol-neurriak hartzen jarraitu du, eta kanpainak egin ditu lan-prekarietateari eta sexu- edo desgaitasun-arrazoiengatik lan-diskriminazioari aurre egiteko. 2024an, aurreko urteko (2023) balantzearen azterketa xehatua egin da. Horrek erakusten du kontratazioaren iruzurrarren aurkako jarduketaren ondorioz 18.627 kontratu berrikusi zirela, 12.605 Euskadiko Lan Ikuskaritzaren ohiko jarduketaren ondorioz eta 6.022 Talka Planaren esparruan. Horietatik, 5.316 kontratulanaldi osarako eta mugagabeak bihurtzea lortu zen, 2.982 ohiko jarduerarengatik eta 2.334 talka-planean. Lan Ikuskaritzak kontrolatzen du 680 enpresak iruzurra egiten duten lanaldi partzialeko kontratazioan, batez ere emakumeei eragiten baitie. Gainera, 2024an Sinadura bat egin da erakunde eta entitateekin Enpleguaren aldeko Itun Soziala sinatzeko. 97 erakundek eta instituzioek iraultza ekonomikoari berdintasun, lehiakortasun eta enplegu-kalitate handiagoarekin heltzeko hartu duten konpromiso kolektiboa nabarmendu da.

Enpleguaren kalitatea hobetzea eta genero-berdintasuna

Laneko prebentzioa eta segurtasuna areagotzea

2024an, Amianto Arriskua duten Enpresen Erregistroa (AAEE) kudeatzeari buruzko jarraibidea aurkeztu da. Gainera, UPV/EHUko Laneko Medikuntza eta Erizaintza Katedraren aurkezpena egin da. Katedra hori konpromiso sendoa da Euskal Autonomia Erkidegoko laneko segurtasun eta osasunarekin, eta eragile berri bat sartzeko gero eta premia handiagoari erantzuteko sortu da. Eragile berri hori dinamizatu eta lankidetzan aritu ahal izango da, erkidegoan lan-osasuna, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-eremuan osasuna aplikatzea sustatzen eta zaintzen duten erakundeek sarea eraginkorragoa izan dadin.

Lan-ikuskaritza indartzea

Erakunde horren zeregina indartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren 2022-2024 Kudeaketa Plana ezartzen jarraitzen da. Plan horren bidez, lan segurua, berdintasunezkoa eta langile guztientzako eskubideduna bermatu nahi da. Plan horren esparruan, 2024an, Lan Ikuskaritzaren 2023ko balantzea egin da, eta kontratazio iruzurraren aurkako jarduketa globalak islatu dira: 18.627 kontratu berrikusi dira, 12.605 Euskadiko Lan Ikuskaritzaren ohiko jarduketaren ondorioz, eta 6.022 talka-planaren esparruan.

Erantzukidetasuna eta lana eta familia bateragarri egitea sustatzea.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren aurreikuspenak aplikatzen jarraitu da, eta dauden kontziliazio-programak indartu dira. Ildo beretik, Lanbideren Administrazio Kontseiluak enplegua sustatzeko lau programaren 2024ko deialdia onartu du, 23,2 milioi euroko zuzkidurarekin. Zehazki, toki-erakundeek enplegua sustatzeko, landa- eta hiri-inguruneetan emakumeei laguntzeko, familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko eta lan-merkatu arruntan desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko ekimenak abiarazi nahi dira.

Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileago bateranzko bilakaera.

Ekintza nagusien artean, 2024an, langileek enpresa-kudeaketan parte hartzea errazteko laguntzak nabarmentzen dira, gizarte-ekonomiako enpresetan tresnak eta planak finantzatzuz eta, beste kasu batzuetan, kudeaketan partaidetza-ereduak sustatuz. Era berean, kooperatibismoari eta lan-sozietateei buruzko prestakuntza- eta dibulgazio-programak bultzatu dira, gizarte-ekonomiaren arloko ezagutza indartuz. Neurri horiek Enpleguaren aldeko Itun Sozialaren sinadurarekin osatzen dira. Itun horrek berdintasunean, lehiakortasunean eta enpleguaren kalitatean oinarritutako eraldaketa ekonomikoarekin konprometitutako 97 erakunde biltzen ditu. Bestalde, Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE) zabaltzeko eta ezartzeko laguntzak eman dira, jasangarritasun-memoriak, GJHei egindako ekarpenen diagnostikoak eta EGEn eremu publiko, enpresarial eta korporatiboetan hedatzeko ekintzak egiteko.

Elkarriketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea.

2024an, elkarriketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa sustatzeko ahaleginekin jarraituz, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioarekin hitzarmena egin da, hitzarmen kolektiboen, lan-akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroak eta aldi baterako laneko enpresen erregistroak bitarteko elektronikoen bidez funtziona dezaten. Gainera, Gobernu Kontseiluak hauteskunde sindikalen batzordea eta lurralde-batzordeak osatzen dituzten erakunde sindikalei dirulaguntzak ematea onartu du.






3.

BERPIZTU 2020-2024

Balantze orokorra



2020-2024 aldian EGIKARITUTAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2020-2024ko aurrekontu-betearazpen metatua

I. ARDATZA – EKONOMIA SUSPERTZEA

I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) aurrekontu-betearazpen metatua **9.577 milioi** eurokoa da, hau da, I. ardatzean definitutako politiketarako hasieran egindako aurrekontu-aurreikuspenaren % 121.

I. ARDATZEKO (EKONOMIA SUSPERTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (M €) (1)	2020ko betearazpena (XII. legegintzaldia, irailetik abendura) (2)	Exekutatua 2021 (2)	Exekutatua 2022 (2)	Exekutatua 2023 (2)	Exekutatua 2024 (2)	Exekuzio metatua 2020-2024
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M €	341 M €	702 M€	794 M€	932 M €	1.040 M €	3.809 M €
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M €	264 M €	522 M €	595 M€	612 M €	625 M €	2.618 M €
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN- TRANSIZIOA	357 M €	39 M €	136 M €	133 M €	125 M €	78 M €	511 M €
4. INDUSTRIA ETA ETEak, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M €	236 M €	287 M €	316 M €	205 M €	218 M €	1.262 M €
5. ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M €	110 M €	166 M €	226 M €	205 M €	233 M €	939 M €
6. TURISMOAREN ETA KULTURAREN MERKATARITZA ETA INDUSTRIA	313 M €	25 M €	129 M €	120 M €	81 M €	83 M €	438 M €
I. ARDATZA, GUZTIRA - EKONOMIA SUSPERTZEA	7.935 M €	1.015 M €	1.942 M €	2.183 M €	2.160 M €	2.277 M €	9.577 M €
(*) ABALAK	3.700 M €	1.100 M €	650 M €	650 M €	650 M €	650 M €	3.700 M €
I. ARDATZA, GUZTIRA - EKONOMIA SUSPERTZEA	11.635 M €	2.115 M €	2.592 M €	2.833 M €	2.810 M €	2.927 M €	13.277 M €

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako kalkulaturako aurreikusitako aurrekontuen datuak (2020ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokion zatia barne).

2. oharra: 2020ko betearazpen-zifrak irailetik abendura bitartekoak dira, eta egozpena 2020an gauzatutako aurrekontu osoaren % 61i dagokio. 2021, 2022, 2023 eta 2024ko betearazpen-zifrak Ogasun eta Finantza Sailaren Gardena webgunean argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontua), sailaren kontraste batekin batera.



2020-2024 aldirako metatutako aurrekontu-betearazpena eta enplegu-sustapena

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

II. ardatzaren (Enplegua sortzea) aurrekontu-betearazpen metatua 1.680,9 milioi eurokoa da, hau da, II. ardatzean definitutako politiketarako hasieran egindako aurrekontu-aurreikuspenaren % 104. Uste da gauzatze horrekin 193.307 enplegu sustatzen lagundu dela 2024an.

II. ARDATZEKO (ENPLEGUA) POLITIKAK	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2020ko betearazpena (XII. legegintzaldia, irailetik abendura) (2)		Gauzatzea 2021 (2)		Gauzatzea 2022 (2)		Gauzatzea 2023 (2)		Gauzatzea 2024		Exekuzio metatua 2020-2024	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILETZA. ENPRESA BERRIAK	128 M €	10.790	15 M €	1.674	25 M €	2.353	34,6 M €	2.657	30 M €	3.173	34 M €	3.539	139 M €	13.396
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	342 M €	42.100	31 M €	3.967	78 M €	12.145	71,3 M €	17.982	81 M €	18.035	77 M €	17.538	338 M €	69.667
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577 M €	26.110	60 M €	4.970	109 M €	6.371	118 M €	4.689	139 M €	4.912	135 M €	5.372	561 M €	26.314
10. RENOVE PROGRAMAK. BIRGAIKUNTZA ERAIKUNTZA	406 M €	15.000	51 M €	3.225	76 M €	3.079	93 M €	3.475	119 M €	4.348	119 M €	3.902	458 M €	18.030
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)	--	10.720	--	2.538	--	3.988	--	8.764	--	3.320	-	3.949	-	22.559
12. GAZTEEN ENPLEGURAKO TALKA-PLANA	162 M €	25.800	11 M €	2.519	27 M €	5.605	51,2 M €	6.291	60 M €	14.285	36 M €	14.642	185 M €	43.341
II. ARDATZA GUZTIRA - ENPLEGUA	1.615 M €	130.520	168 M €	18.893	315 M €	33.541	368 M €	43.859	429 M €	48.073	401 M €	48.942	1.681 M €	193.307

1. oharra XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, legegintzaldia hasi eta lehen urtean egozpena eginda (2020ko iraila). Enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. ardatzaren (Enplegua sortzea) aurrekontu-betearazpena eta enpleguan duen eragina irailetik abendura bitarteko aldiari dagozkio, eta 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) aurrekontu-betearazpenaren egozpen-maila bera aplikatuz kalkulatu dira (2020ko aurrekontuaren % 61). 2021, 2022 eta 2023ko betearazpen-zifrak Ogasun eta Finantza Sailaren Gardena webgunean argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontua), sailaren kontraste batekin batera.



2020-2024 aldiko emaitza metatuak

Jarraian, jarduera ekonomikoan izandako beste inpaktu batzuen 2020-2024 aldiko emaitza metatuei buruzko ikuspegi bat ematen da, kontuan hartuta enpresa berriak sortzeko aurreikuspena (mikroETEak eta autonomo berriak barne), I+G+Bko proiektuen sustapena eta finantzaketa, eta industria-enpresei modernizatzen eta hedatzen laguntzea.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak 2020-2024	2020ko emaitzak (XII. legegintzaldia, iraila-abendua) (1)	2021eko emaitzak	2022ko emaitzak	2023ko emaitzak	2024ko emaitzak (2)	Emaitza metatuak 2020-2024
ENPLEGUAK GUZTIRA	130.000	18.893	33.541	43.859	48.073	48.942	193.307
GAZTEEN ENPLEGUAK	25.800	2.519	5.605	6.291	14.285	14.642	43.341
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	660	1.075	1.622	1.282	1.440	6.079
Mikroekintzailatza eta autonomo berriak	5.000	545	891	1.492	1.125	1.273	5.325
Enpresa berritzaile berriak	1.000	115	184	130	157	167	814
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	97	117	352	248	175	989
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (2)	600	97	117	352	248	175	989
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	1.330	2.933	2.782	2.655	3.271	12.971
Nazioartekotzeko	1.500	170	279	272	319	418	1.458
Modernizatzeko eta hedatzeko	1.500	214	644	625	628	918	3.029
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	238	767	790	746	951	3.492
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	231	293	211	92	131	958
Produktu berriak garatzeko	4.000	477	950	884	870	853	4.034

1. oharra: XII. legegintzaldirako, hasieratik (irailetik abendura) jarduera ekonomikoaren emaitzak egozteko, 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) exekuzio ekonomikoaren egozpen-maila bera aplikatuko da (2020ko aurrekontuaren % 61). Abiapuntuko datuak 2020ko emaitzen memorietatik atera dira.

2. oharra: hasierako aurreikuspenak (2020-2024) Europako I+G+Bko 600 proiekturi eguneratu zaizkie, kontuan hartuta "Horizonte Europa" ikerketa-programa europar berria abian jartzeko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak. Era berean, 2021eko emaitza (50etik 117ra proiektu) eta 2022koa (333tik 352ra) zuzendu dira, H2020tik "Horizon Europara" igarotzeko Europako Ataria eguneratu ondoren.





1. ERANSKINA

BERPIZTU 2024

Aurrekontu-betearazpenaren
xehetasuna, emaitzak eta
ekintza nagusiak





I. ardatza – Ekonomia suspertzea

Berpiztu Programa 2024

- 1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
- 2. politika. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala
- 3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
- 4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
- 5. politika. Elikagaien industria
- 6. politika. Turismoaren eta kuturaren merkataritzaeta industria



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

EUSKADIKO GARRAIO JASANGARRIAREN GIDAPLANA 2030

TRENBIDE-AZPIEGITURAK

Luzatu egin da Lezoko terminal intermodal eta logistikoa garatzeko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin sinatutako lankidetzaren protokoloa, eta aldaketa-eranskin bat gehitu da, egungo beharretara egokitzeko. Gainera, Donostiarako abiadura handiko sarbideak eraikitzea amaitu da, euskal Y-aren Gipuzkoako korridorearen 60,7 kilometroak osatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-lineen zarata-mapak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko zarataren aurkako ekintza-plana onartu dira. Azkenik, apirilaren 16ko 43/2024 Dekretua izapidetu da, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatu Administrazioaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.

HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK

2020-2024 aldian, 520 milioi euro bideratu dira ikastetxe publikoetako hezkuntza-azpiegiturretara eta ekipamenduetara, Leioako Barandiaran Institutuaren eraikin berria barne. Gainera, Udalaguntza programa jarri da abian, hezkuntza-administrazioaren ikastetxe gisa erabiltzen diren udal-higiezinetan obrak finantzatzeko eta karpak instalatzeko.

Aldi berean, makineria eta ekipamendu aurreratua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzen programa bat abiarazi da, 4.0 teknologiak ezartzera bideratua, Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei berariaz zuzendua.

OSASUN-AZPIEGITURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-arloko inbertsioa indartu egin da 2024an, hainbat lurralde historikotan egindako ekintzen bidez. Alde batetik, goi-teknologia sanitarioko ekipoak erosi dira (53,6 milioi euro) eta kirurgia robotikoa instalatu da Galdakao-Usansoloko Unibertsitate Ospitalean (2 milioi euro).

Gainera, Basurtuko, Usansolo-Galdakako eta Donostiako ospitaleak handitzeko asmoa dago, kanpo-kontsultetarako hiru eraikin berri eraikiz. Laguntza-programa bat ezarri da toki-korporazioek osasun-zentroetan eta mediku-kontsultategietan azpiegitura berriak, erreformak, konponketak eta altzariak jartzeko proiektuak diseinatu eta gauzatu ditzaten. Bikaintasun klinikoari dagokionez, Santa Marina Ospitaleko Ekografia Klinikoko Unitatea unitate aurreratu gisa akreditatu du Barne Medikuntzako Espainiako Elkarteak, "SEMI-Excelente" zigiluarekin. Azkenik, Gorrizko Ospitaleak puntako teknologia txertatu du kalte neurologikoa duten pazienteak errehabilitatzeko, eta Osakidetzako berrikuntzarekiko eta asistentzia-kalitatearekiko konpromisoa sendotu du.

ETXEBIZITZA-AZPIEGITURAK

Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestuekiko konpromisoa indartzen du, funts autonomikoekin eta Next Generation EUrekin finantzatutako alokairuko 152 etxebizitza jasangarri amaituz eta martxan dauden 14 sustapenetan 1.140 gehiago eraikiz. Berriatua eta Lasarte-Oria bezalako udalerriekin egindako hitzarmenek alokairuko etxebizitza publikoak eta zuzkidura-bizitokiak sortzea errazten dute, hala nola Maialen Chourraut kiroldegian.

Ekimenen artean daude Bizikide proiektua, Euskadin erabilera lagatzeko lehen kooperatiba, eta Alokairu programa, eraikin pribatuak alokairu sozialera bideratzeko lankidetzaren sustatzen duena, aseguratutako errenten bidez. Era berean, landa-eremu eta hiri-eremu degradatuetan birgaitze-programak sustatzen dira, hala nola etorkizuneko Bilboko Hiria Berroneratzeko Nazioarteko Zentroan. Gainera, Eraikal programak eraikuntzako berrikuntza bultzatzen du, klima-aldaketari, digitalizazioari eta bizi-kalitateari lagunduz.



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

KULTURA-AZPIEGITURAK

Eusko Jaurlaritzak, 2024an zehar, kultura-sektorea bultzatu du, Sorgune programaren gisako ekimenen bidez. Programa horrek laguntza ekonomikoak eskaintzen dizkie kultura-praktikak sustatzeko gunee independenteei. Gainera, Agustinak Zentroa inauguratu da, kultura- eta sormen-industrietan proiektuak garatzeko erreferentziazko zentroa, Euskadin berrikuntzarekiko eta kulturaren sustapenarekiko konpromisoa sendotuz.

BESTE AZPIEGITURA BATZUK

Hiri-berroneratzearen esparruan, landa-eremu eta hiri-eremu degradatuetan birgaitze-programak sustatzen dira, hala nola etorkizuneko Bilboko Hiria Berroneratzeko Nazioarteko Zentroa. Gainera, Eraikal programak eraikingintzako berrikuntza bultzatzen du, klima-aldaketa, digitalizazioari eta bizi-kalitateari lagunduz.

Gainera, eta enpresa-azpiegiturei eta lurzoru industrialari dagokionez, Sprilurrek Fabrikazio Aurreratuko Zentro (BAM) berriaren eraikuntza lizitatu du. Zentro hori Estatuan erreferentzia izango da automobilgintzaren sektorean, Gasteizen.

Era berean, Burtzeña-Barakaldoko Ontziolen eta Zentral Termikoaren lurzati zaharretatik 73.369 metro koadroko deskontaminazioa hasi da, industria-espazioak erabilera berrietarako berreskuratzea aurrera eginez.

AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK

Eusko Jaurlaritzak bere konpromisoa indartu du administrazio eta plangintza hidraulikoari dagokionez. Ildo horretan, URAk eta Donostiako Udalak Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko obrak egin dituzte Loiola auzoan, kuartelak dauden lursailen etorkizuneko hirigintza-garapenaren testuinguruan.

Uholdeen kudeaketari dagokionez, 2024rako hainbat jarduketa garatzen ari dira, hala nola Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskuaren Atariko Ebaluazioa berrikustea eta eguneratzea, Uholde Arriskua Kudeatzeko Programaren (UAKP) neurriak gainbegiratzea eta EAEko uholde-arriskuaren batimetria eta kartografia handitzea.

Gainera, Zallako Aranguren auzoan Kadagua ibaiaren uholdeetatik babesteko obrak hasi dira, eta arrisku hidrikoetatik babesteko konpromisoa berretsi da.

PORTU-AZPIEGITURAK

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren jarduketa garrantzitsuenek portuko babes-azpiegiturak indartzeko jarduerak jaso dituzte, ekaitzen inpaktu-energia eta olatuen altuera izugarriaren aurrean. Hala, 2024an, Mutrikuko portuko kanpoko dikea luzatzen jarraitu da, 2022ko hirugarren hiruhilekoan hasita.

Era berean, 2023ko hirugarren hiruhilekoan hasi ziren Ondarroako portuko babes-dikea indartzeko obrak, eta 2024ko azken hiruhilekoan amaitzea aurreikusi da. Bi jarduketa horiek burututa, Zuzendaritza honek epe laburrean EAEko portuetako babes-dikeak indartzeko eta egokitzeko programatutako jarduketa nagusiak amaituko lirateke.



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

Taula honetan, 2024an ekonomia- eta gizarte-azpiegitura publiko berriak sustatzeko exekutatutako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	2024ko aurreikuspena (2)	Gauzatzea 2024 (3)
Trenbide-azpiegiturak	1.563 M €	545 M €	530 M €
Portu-azpiegiturak	102 M €	32 M €	18 M €
Azpiegitura sanitarioak (fisikoak eta digitalak)	323 M €	145 M €	170 M €
Azpiegitura hidraulikoak	120 M €	33 M €	33 M €
Etxebizitza-azpiegiturak	285 M €	120 M €	140 M €
Hezkuntza-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	451 M €	183 M €	114 M €
Kultura-azpiegiturak	132 M €	35 M €	35 M €
1. POLITIKA, GUZTIRA	2.976 M €	1.093 M €	1.040 M €

1. oharra: XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpenarekin.

2. oharra: 2024ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2023ko abenduaren 22an onartutako aurrekontuetatik atera dira.

3. oharra: 2024ko exekuzio-zifrak Ogasun eta Finantza Sailaren Gardena webgunean argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontua).



2. politika. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA: ZTBP 2030 (urteko aurrekontu-hazkundera +%6)

7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2024ko aurreikuspena (2)		2024ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
MikroETEak eta autonomoak	26 M €	4.565	5 M €	1.169	5 M €	1.040
Elikagaien sektoreko enpresa berriak	13 M €	1.245	3 M €	361	3 M €	322
Gizarte-ekonomiako enpresa berriak	6 M €	747	4 M €	600	3 M €	534
Turismo- eta merkataritza-sektoreko enpresa berriak	8 M €	913	7 M €	846	6 M €	753
Enpresa berritzaile berriak	175 M €	3.320	19 M €	1.000	17 M €	890
7. POLITIKA, GUZTIRA	128 M €	10.790	39 M €	3.269	34 M €	3.539

1. oharra: XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpenarekin.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuen jatorria "210 Gainegiturak txostena - Enplegu Plana" da. 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da; ondoren sailek berrikusi eta eguneratu zuten aurreikuspen hori.



8. politika. Enplegurako prestakuntza

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. ENPLEGUAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legea onartzea. Lege horren bidez, lehenengo aldiz, Euskadin enplegu-politika aktiboen arloko autogobernua garatzen da, eragile guztien jarduketa antolatzen da, lan duina definitzen da eta lan-prestakuntzarako diagnostikoa, orientazioa eta sarbidea herritartasun-eskubide berri gisa aitortzen dira. Jarduera-esparru horretan, ekimen batzuk nabarmentzen dira, hala nola Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren edo Enplegurako eta Inklusiorako Berrikuntza Sarearen sorrera (administrazioko 59 erakundek osatua, enplegu-zerbitzuak kudeatzen dituztenak, pribatuak eta hirugarren sektorekoak, enpresa- eta sindikatu-arlokoak, eta ezagutzakoak).

LANGABEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruan prestakuntza-ekintzak garatu dira, 2024-2025 deialdiaren bidez, erakunde publiko eta pribatuei lagunduz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako 2024-2025 Espezialitate programagarrien txostenean jasotako prestakuntzetan. Prestakuntza-planen helburua da langile langabeak birkualifikatzea lan-merkatuak eskatzen dituen kualifikazio eta gaitasunetan.

Bestalde, langile kualifikatuen eskari handiko sektoreetan eta enplegu-gune berrien eremuko konpetentzia profesionaletan prestakuntza-jarduerak babesten jarraitu da. Horrez gain, landa- eta hiri-eremuetako emakumeentzako prestakuntza-programak (SEEParen esparruan); biztanleria aktiboaren prestakuntzarako eta birkualifikaziorako reskilling eta upskilling ekintzak garatzea, sektore estrategikoetako, pertsonen zaintzako eta despopulazio-arriskuan dauden guneetako kualifikazio profesionalekin lotuta (langabeentzako eta landunentzako ekintzak).

Era berean, langabeentzako teleprestakuntza-modalitateko prestakuntza-eskaintzaren bigarren deialdia egin da (2024-2025), profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea errazteko. Berrikuntza gisa, etorkin langabeak gaztelaniaz alfabetatzeko prestakuntza-ekintzetarako deialdi bat onartu da.

Aipatu behar da Europa Institutuarekin programa berri bat abiarazi dela 100 langabe SAP teknologian prestatzeko.

LANDUNAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Langile landunen 2024-2025eko prestakuntza-eskaintza finantzatzeko deialdia onartu da, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera eta langileen banakako birkualifikaziora bideratutako ekintzak barne.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere ohiko deialdietan, zainketen arloko prestakuntzarako Mentsad-ZainLab programa sartu du. Era berean, lan-inguruneke prestakuntza digitalerako eta reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzen deialdia onartu da (SEEParen esparruan).

Bestalde, enpresek laguntza izan dute beren langileentzako prestakuntza-ekintza estrategikoak garatzeko (prestakuntza hobaridunaren kreditua agortu ondoren), bai eta aholkularitza pertsonalizatuko zerbitzu bat ere, beren beharretara eta erronketara egokitutako prestakuntza-ekintzak edo gaitasunak egiaztatzeko prozesuak programatzeko.

LAN-ORIENTAZIOA

Enplegurako orientazio profesionaleko ekintza eta zerbitzuen 2023-2025eko deialdia gauzatzen jarraitu da, prestakuntza laneratze-ibilbide integral pertsonalizatuak diseinatzeko prozesuaren zati gisa lotuz, enplegutik urrunen dauden pertsonen arreta berezia eskainiz.

Bestalde, Enpleguaren Euskal Legean aurreikusitako pertsonalizazioari erantzunez, Lanbidek banakako erreferentziazko pertsona bat esleitu (eta jakinarazi) die langabeei, iraupen luzeko langabeziari lehentasuna emanaz.



8. politika. Enplegurako prestakuntza

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. ENPLEGUAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

KONTRATAZIO-KONPROMISODUN PRESTAKUNTZA

Kontratazio-konpromisoarekin neurrira egindako prestakuntzak jarraipena izan du, berariazko kualifikazio-osagarria behar duten lanbide-profilen premia zehatzei erantzuteko. Enpresek prestakuntza-ekintza espezifikoak garatzeko laguntza izan dute, eta prestakuntza jaso duten pertsonen % 50 gutxienez kontratatzeke konpromisoa hartu dute.

Era berean, emakume eta gizon langabeek lanbide maskulinizatu eta feminizatuetan (Morrokotudak) kualifikazioa eta laneratzea sustatu da, prestakuntza- eta enplegu-programa espezifikoaren bidez, gutxienez % 70 kontratatzeke konpromisoarekin.

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA ARLOKO TREBAKUNTZA

Nekazaritzako, itsas arrantzako eta elikagaigintzako gaikuntzaren sektoreetan prestakuntza-jarduerak egiten jarraitu da, dagokion urte anitzeko deialdia ezarri eta Hazirekin kudeaketa-akordioaren bidez.

Programa horrek langabeei zein landunei zuzendutako prestakuntza-ekimenak jaso ditu.



8. politika. Enplegurako prestakuntza

Taula honetan, 2024an exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegurako prestakuntzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

8. politika. Enplegurako prestakuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2024ko aurreikuspena (2)		2024ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Lan-orientazioko programak	35 M €	16.600	9 M €	4.916	8 M €	4.375
Nekazaritza eta arrantza gaitzeko programak (elikadura-katea)	3 M €	519	1 M €	300	1 M €	267
Kontratazio-konpromisodun prestakuntza	14 M €	1.245	-	350	-	-
Langabeak laneratzeko prestakuntza	222 M €	23.736	56 M €	14.490	50 M €	12.896
Landunak birziklatzeko prestakuntza	68 M €	*	20 M €	*	18 M €	-
8. POLITIKA, GUZTIRA	342 M €	42.100	86 M €	20.056	77 M €	17.538

(*) Birziklatze-programek enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa dute, baina zuhertasun-hipotesiagatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea.

- oharra: XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpenarekin.
- oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuen jatorria "210 Gainegiturak txostena - Enplegu Plana" da. 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenen oinarritzen da; ondoren sailek berrikusi eta eguneratu zuten aurreikuspen hori.
- oharra: Kontuan hartu behar da hasierako aurreikuspenetan enplegurako prestakuntza-jardueretarako zenbatetsitako laneratzeko-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-gomendiotik eratorritakoa baino (% 45), eta hori aplikatu da azkenean 2024ko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.



9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. ENPLEGUAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen Programak dagokion urteko deialdia izan du, enplegarritasuna hobetzeko eta langabeen kontratazioa sustatzeko, tokiko erakundeek enplegua sustatzeko jarduerak garatuz, tokiko enpresek kontratazioa sustatuz eta laneratzean lagunduz.

Era berean, Debabarrena Eskualderako Jarduera Plan bat egin da, Lehenasunezko Jarduera Eremu izendatua, eta egoera ahulean dauden eskualdeak eta/edo lehenasunezko arretako eremuak (Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea) bultzatzeko plan bereziekin jarraitu da, horiek bultzatzeko ekintza espezifiko bidez, trakzio-proiektuak dinamizatuz.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KONTRATAZIOA

Desgaitasuna duten pertsonak laneratzeako konpromisoak lehenasuna izaten jarraitzen du, eta lan-merkatu arruntan parte hartzea sustatzen duten programen bidez lagundu da. Hori agerian geratzen da kontratazio mugagaberako pizgarrien urteko programan, lanpostuak haien baldintza fisiko, psikiko eta intelektualetara egokitzeak erraztasunak emanez, bai eta enplegu lagunduko unitateentzako laguntza espezifikoetan ere.

ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

Enplegu Zentro Berezien (EZB) jarduerak laguntza jasotzen jarraitzen du urriaren 29ko 168/2019 Dekretuaren bidez, desgaitasuna duten pertsonen lanpostuei eusteko, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50etik % 55era bitartean. Ildo beretik, Enplegu Zentro Bereziatako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateentzako laguntzak onartu dira. Unitate horiek talde multiprofesional gisa eratzen dira, desgaitasuna duten EZBtako langileek dituzten oztupoak gainditzen laguntzeko.

BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK LANERATZEA ETA LANERATZEKO ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

Laneratzeko enpresek beren jarduerak sortzen eta mantentzen laguntzen jarraitu dute. Jarduera horiek gizarteratzeko eta laneratzeako prozesu bat erraztera bideratuta daude, eta laguntza eman diete kolektibo behartsuenei edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei merkatu arruntan. Laguntzak mota horretako erakundeak abian jartzera bideratuta daude, bai eta haien bideragarritasuna eta merkatu berriak irekitzeko aukera ebaluatzen dituzten azterlanetara ere. Deialdiak aurrekontu-zabalkuntza izan du jasotako eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ETA LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOEN GIZARTERATZEA

"Laneratzeko eta berrikuntza soziorabalerako proiektu berezien" urteko deialdiak lanean ari diren langileen eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeen gizarteratzea eta laneratzea indartzen jarraitu du. Proiektu horiek prestakuntza-, orientazio- eta/edo enplegu-ekintzak eta parte-hartzaileen enplegarritasuna eta konpetentzia pertsonalak eta profesionalak nabarmen hobetuko dituzten beste neurri batzuk konbinatzen dituzte.

Lehenasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralen deialdia egin da, 45 urtetik gorako langabeei eta gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenei edo Gizarte-egoera ahulean daudenei enplegurako arreta pertsonalizatua emateko.

Berrikuntza gisa, deialdi berri bat garatu da 50 urtetik gorako langabeentzat (urtebetez edo denbora gutxiagorako emakumeentzako eta 55 urtetik gorako pertsonentzako laguntzen intentsitate handiagoarekin).

Era berean, landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programaren bigarren deialdia onartu da (SEEParen esparrua), eta 2024-2025 aldirako laguntzen deialdi berri bat onartu da, etorkinen egoitza eta lanerako baimenak errazteko, prestakuntza eta laneratzerako errotze-arrazoiengatik.



9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. ENPLEGUAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

KONTZILIAZIOAN DAUDEN PERTSONAK ORDEZKATZEKO KONTRATAZIOA

Lana eta familia bateragarri egitearen aldeko apustua enpresei zuzeneko laguntza emateko urteko programan islatu da, 164/2019 Dekretuaren babesean. Programa honek langabeak kontratatzen eta lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonen lanaldia luzatzen laguntzen du.

Deialdi horrek diruz lagun daitezkeen gehieneko epeak eguneratu ditu, eta ia bikoiztu egin ditu ordeztutako pertsona gizona bada eta emakume bat kontratatzen bada.



9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Taula honetan, 2024an exekutatutako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta laneratzearen eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2024ko aurreikuspena (2)		2024ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	174 M €	14.525	19 M €	2.080	17 M €	1.851
Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzea	18 M €	1.245	6 M €	720	5 M €	641
Luzaroko langabeak laneratzea, sektore pribatuan kontratatzeko laguntzen bidez; berrorera eta ekitaterako lurralde-proiektuak; 50+ Programak	6 M €	518	14 M €	779	12 M €	693
Enpresetan laneratzeko programa espezifikoak	58 M €	3.182	16 M €	687	15 M €	611
Desgaitasuna duten pertsonak enpresetan kontratatzea (kontratazio mugagaberako laguntzak + enplegu lagundua)	8 M €	830	2 M €	220	1 M €	196
Enplegu Zentro Bereziak	258 M €	*	78 M €	*	70 M €	*
Laneratzeko enpresentzako laguntzak	45 M €	*	15 M €	*	13 M €	*
Lana eta familia erantzunkidetasunez uztartzeak eragindako enplegua	10 M €	5.810	2 M €	1.550	2 M €	1.380
9. POLITIKA, GUZTIRA	577 M €	26.110	151 M €	6.036	135 M €	5.372

(*) Programa horiek desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enpleguaren egonkortasuna bermatzen dute, baina zuhurtziaz jo da ez dutela enplegu berriak sortzen modu esanguratsuan.

1. oharra: XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpenarekin.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuen jatorria "210 Gai negiturak txostena - Enplegu Plana" da. 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenen oinarritzen da; ondoren sailek berrikusi eta eguneratu zuten aurreikuspen hori.



10. politika. Renove programa. Birgaikuntza Eraikuntza

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. ENPLEGUAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

ERAIKUNTZAKO RENOVE PROGRAMAK

Birgaitze- eta eraikuntza-jarduerak eremu dinamikoa izaten jarraitu dute enplegua sortzeari dagokionez, eta lanpostu berriak sortu dira eraikuntzari, oro har, eta birgaitzeari eta trantsizio ekologikotik eta Europako Itun Berdetik eratorritako betebeharrei lotuta, Europak jasangarritasunaren arloan hartutako konpromiso handien zati gisa.

Horrela, etxebizitzak birgaitzeko eta irisgarritasun-baldintzak eta energia-efizientzia hobetzeko programak babesten jarraitu da, bai eta osasun-zentroetako eta ikastetxe publikoetako azpiegiturak eta ekipamenduak birgaitzeko eta hobetzeko programak ere. Programa horiek sektore horren jarduera ekonomikoa bultzatzen dute, bai eta lanpostu "berdeak" sortzea ere, Europako jasangarritasun-irizpideekin bat etorritz.

Jarduera nagusiak programa hauen bidez hedatu dira:

RENOVE Etxebizitza: Etxebizitzen eta eraikinen birgaikuntza efizientea babesten jarraitu da, bizigarritasuna, segurtasuna eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko. Horretarako, partikularrentzako eta jabeen erkidegoentzako laguntzen deialdia edo eraikitako ondarean esku hartzeko proiektuak egiteko laguntzen deialdia egin da. Era berean, hiri-ingurunearen eta espazio publikoen irisgarritasuna hobetzera bideratutako berroneratze-jarduketak babestu dira, bai eta hirigintza- eta gizarte-arazo bereziak dituzten eremuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketak ere. Kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura handitu da, 2024ko ekitaldian kreditu-beharrei erantzuteko, bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen finantzaketa osagarriak.

RENOVE Ikastetxeak: Ikastetxe publikoetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa) birgaitze-obra egiten lagundu da, azpiegiturak egokitzeko edo erreformatzeko eremuan hautemandako premiak betetzeko eta/edo eskolatzeko-arrazoiengatik handitzeko. Obrak, batez ere, arkitektura-oztopoak kentzera, espazio eta instalazio jakin batzuk handitzera eta eraberritzera bideratu dira (karrerapeak, estalkiak, jantokiak eta sukaldeak, aldagelak, kirol-eremuak, instalazio elektrikoak...), baita suteen aurkako araudira egokitzera eta eraikin berriak eraikitzen ere.

RENOVE Osasun-zentroak: osasun-zentro publikoak birgaitzeko eta birmoldatzeko jarduketak babestu dira, mota eta irismen desberdinetako erreformak barne, bai eta azpiegituren, instalazioen eta irisgarritasunaren hobekuntza orokorra ere. Obrek, funtsean, honako ESI eta azpiegitura sanitario hauei eragin diete: Arabako ESI; Debagoieneko ESI; Donostialdeko ESI; Goierri-Urola Garaiko ESI; Arabako Osasun Mentaleko Sarea; Bilbo-Basurtuko ESI; Barrualde-Galdakaoko ESI; Barakaldo-Sestaoko ESI; Ezkerraldea Enkarterri Gurutzetako ESI; Arabako Errioxako ESI; Tolosaldeko ESI; Bidasoa ESI; Debarreneneko ESI; Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea; Uribe ESI; Transfusio eta Ehunen Euskal Zentroa H. ESI; Bizkaiko SLAUD mentaleko sarea; Santa Marina ospitalea; Gorkiz ospitalea.



10. politika. Renove programa. Birgaikuntza Eraikuntza

Taula honetan, 2024an exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta Renove – Birgaikuntza – Eraikuntza programen eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

10. politika. Renove programak. Birgaikuntza Eraikuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2024ko aurreikuspena (2)		2024ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Renove Etxebizitzak	143 M €	10.269	28 M €	2.280	25 M €	2.029
Renove Ikastetxeak	209 M €	3.752	85 M €	1.696	76 M €	1.509
Renove osasun-zentroak	54 M €	979	20 M €	409	18 M €	364
10. POLITIKA, GUZTIRA	406 M €	15.000 (*)	133 M €	4.385	119 M €	3.902

(*) Biderkatzaileetan oinarritutako zenbatespena. Renove Etxebizitzaren kasuan, inbertsio publikoa 4 aldiz biderkatzen da (laguntza publikoko 1€ gehi inbertsio pribatuko 3€ jabeko), eta, zifra horren gainean, 0,6ko biderkatzailea aplikatzen da soldatara (enpleguak) bideratutako zatia kalkulatzeko, eta zatiketa bat 30.000 euroko enplegu bakoitzeko batez besteko soldata batekin. Renove Ikastetxeen eta Renove Osasunaren kasuan, inbertsioa % 100 publikoa da, eta, beraz, batez besteko soldataren biderkatzaileak baino ez dira kontuan hartzen.

1. oharra: XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpenarekin.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuen jatorria "210 Gainegiturak txostena - Enplegu Plana" da. 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da; ondoren sailek berrikusi eta eguneratu zuten aurreikuspen hori.



11. politika. Enplegu publikoaren eskaintzak

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. ENPLEGUAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

ENPLEGU PUBLIKOA

Euskal administrazio publikoarentzat erronka da oraindik ere enplegu publikoaren sektorea enplegatzaile eraginkor eta efiziente gisa finkatzea, kalitatezko enplegua sortzea eta hobetzea sustatzeko.

2024ko abenduaren 17ko Gobernu Kontseiluak EAEko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen, EAEko Hezkuntza Administrazioaren, Segurtasun Administrazioaren, Ertzaintzaren eta zuzenbideko erakunde publikoen 2024ko lan-eskaintza publikoa onartu du.

Eskaintza ia 4.000 plazakoa da (3.949 plaza), hainbat sektoretan banatuta, zerbitzu publikoak indartzeko. Plaza horiek 2025. eta 2027. urteen arteko deialdi publikoen bidez beteko dira. Plazak honela banatzen dira: 420 Administrazio Orokorrean eta Erakunde Autonomoetan; 1.046 Hezkuntzan; 23 Segurtasuneko Zerbitzu Osagarrietan; 525 Ertzaintzan; eta 1.935 EAEko Administrazio Instituzionaleko zuzenbidezko erakunde publikoetan eta sektore publikoko erakunde instrumentaletan.

EPE honen helburuak honako hauek dira: enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatzea, euskal administrazioaren egiturazko bitartekotasuna % 8tik behera murriztea eta plantilla publikoan belaunaldi-erleboia erraztea. 2024rako aurreikusitako egonkortze-prozesuari dagokionez, 3.400 plaza finkatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean.

Era berean, 2024an mugarri garrantzitsu bat bete da Osasun Sailarentzat eta Osakidetzaarentzat; izan ere, 2020ko, 2021eko eta 2022ko ekitaldietako birjarpen EPEak burutu dira, eta, bereziki, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen egonkortze-EPEa. EPE horrek, 2018-2019 aldikoarekin batera, euskal osasun-zerbitzuan plantillak egonkortzeko prozesu handiena ekarri du: 11.000 plaza baino gehiago, plantillaren heren bat.

Aurreikusitako hurrengo urratsetan (2025) lekualdatze-lehiaketa egingo da, langile finkoak birkokatzeko. Ondoren, egituratutako EPEen etapa berri bati ekingo zaio, plantilla publikoa finkatzera eta berritzera bideratutako deialdi publiko erregularrekin.

11. politika. Enplegu publikoaren eskaintzak

Taula honetan, 2024an exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegu publikoaren esparruan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

11. politika. Enplegu publikoaren eskaintzak	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2024ko aurreikuspena (2)		2024ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Administrazio Orokorra	*	1.150	*	250	*	420
Osasuna	*	4.100	*	1.201	*	*
Ertzaintza	*	1.900	*	315	*	525
Hezkuntza	*	3.100	*	800	*	1.046
Justizia	*	320	*	335	*	*
Beste batzuk (EAEko Segurtasun Administrazioaren zerbitzu osagarriak; EAEko Administrazio instituzionaleko zuzenbidezko erakunde publikoak eta sektore publikoko erakunde instrumentalak)	*	150	*	*	*	1.958
11. POLITIKA, GUZTIRA	*	10.720	*	2.901	*	3.949

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

1. oharra: XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpenarekin.

2. oharra: 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da, ondoren sailek berrikusia eta eguneratua.



12. politika. Gazteen Enplegurako Talka Plana

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. ENPLEGUAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

LANBIDE HEZIKETA ETA UNIBERTSITATE DUALA

Prestakuntza dualaren ereduak aurrera egiten jarraitzen du unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren eremuan, II. Unibertsitate + Enpresa 2022-2026 Estrategiaren hedapenaren bidez. Helburua da unibertsitate-prestakuntza duala bultzatzea eta unibertsitate-prestakuntza duala egiten duten ikasleen kopurua bikoiztea, 2026an 10.000ra iritsiz. Era berean, eskaintza bikoiztu nahi da, unibertsitateko prestakuntza dualeko 80 titulazio lortu arte.

Era berean, Unibertsitatea + LH programarekin jarraitu da. Programa horren bidez, igarobideak erraztu nahi dira, adar bereko LH ziklo batekin ikasketak indartu nahi dituzten unibertsitate-ikasleek beharrezko kredituen % 25, gutxienez, baliozkotu dezaten.

GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-BEKAK

2024an, gazteen nazioarteko esperientzia babesten jarraitu da, Beint International eta Global Training beken deialdien bidez. Bestalde, arlo zientifiko-teknologikoak eta nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektorea babesten jarraitu da, gazteentzako beka espezifikoen deialdien bidez.

HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURA IGAROTZEKO PROGRAMAK

Gazteak hezkuntza-eremutik lan-arlora igarotzeak babesa izaten jarraitu du, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako zentroekin lankidetzan aritzeko programen bidez. Programa horiek ezagutzak, trebetasun teknikoak eta trebetasunak zabalduko dituzten enpresa-esperientziak ematen dizkiete ikasleei, eta enpresen benetako eskaerak betetzeko prestatzen dituzte.

LEHEN AUKERA

Gazteentzako lehen lan-aukeraren programek lehentasuna izaten jarraitzen dute. Horrela, Lehen Aukera 2024 programaren urteko deialdia egin da, gazteei lehen lan-esperientzia lortzeko aukera emateko, enpresek beren prestakuntza akademikoarekin lotutako rolak kontratatuta.

Era berean, toki-erakundeek 16 eta 30 urte bitarteko gazteak kontratatzeko laguntzen deialdia egin da, EGF Plus 2021-2027 programaren esparruan, lanbide-esperientziaren bidez haien enplegarritasuna errazteko.

TXANDA-KONTRATUA

Enpresetako plantillak berritzeko eta gaztetzeko prozesuek laguntza izaten jarraitzen dute, urteko deialdiaren bidez, 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako gazteen errelebo-kontratuak, lanaldi osoak eta mugagabeak, hasten direnetik.

Bestalde, LanMentoring programa 2023an abiarazi zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin lankidetzan, eta 2024an jarduera zabaltzen jarraitu du. Programa horrek laguntza-zerbitzu bat eskaintzen du, ETEei beren langileen bizi-zikloa aurreratzen, planifikatzen eta kudeatzen lagunduko dien prozesu bat errazteko. 2024an, Sorkuntza eta Talentuaren Behatokiaren «Sorkuntza Saria» jaso du.

GAZTEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako prestakuntzak gazteen laneratzea errazteko prestakuntza-ekintzak berariaz babesten jarraituko du, egokitzeko gaitasuna hobetuz eta enpresen eskaerak asez. Besteak beste, kualifikazio txikiko gazteen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak aipatu behar dira (oinarriko konpetentzien, gaitasun soziopertsonalen eta gaitasun tekniko profesionalen prestakuntza-ibilbideak dituzten prestakuntza-proiektuak), bai eta gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programa ere, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.



12. politika. Gazteen Enplegurako Talka Plana

GAZTEAK GIZARTERATZEKO EKINTZA BERRITZAILEAK

Gazteen enplegarritasuna hobetzen jarraitzen da, lehen lan-esperientzia lortzen laguntzen duten ekimen berritzaileen bidez. Testuinguru horretan, Europako funtsek zeregin nabarmena izan dute, bereziki Next Generation EU programaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) bidez.

Novia Salcedo Fundazioak jarraipena eman dio "Reactivate 2024 Programari". Programa horren helburua da gazte langabeak EAEko enpresekin konektatzea, esperientzia kualifikatua lor dezaten. Programak prestakuntza praktikoa eskaintzen du enpresa batean, eta dagokion prestakuntza-plan indibidualizatuan adierazitako funtzioak betetzen ditu.

Era berean, "Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa" ren urteko deialdia egin da, 16 eta 30 urte bitarteko gazteei administrazio publikoetan eta sektore publikoko erakundeetan lehen lanbide-esperientzia emateko.

Ikerlan programa, Investigoren jarraipena eta azken urteotan Europako funtsek finantzatutakoa, Lanbideren egiturazko ekimena bihurtu zen 2024an. Programa honek langabezia dauden gazteak kontratatzen dituzten enpresei laguntzen die osasungintza, trantsizio ekologikoaren, ekonomia berdearen, zerbitzuen digitalizazioaren eta "Data Science" izeneko alorretan berritzeko eta ikertzeko.

Bestalde, abian jarri da Konektalan komunitate birtual berria, enpleguaren kalitatearen aldeko apustua eginez euskal enpresei talentua erakartzeko tresna berri gisa. Gazteak dira kolektibo nagusietako bat, baina tresnak "talentu guztiak" integratzeko aukera eman nahi du.

GAZTEEN EKINTZAILETZA

2024an, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Erakundearteko Ekintzailetza Plana 2024 (EEP 2024) bultzatu du, eskualdeko ekosistema ekintzailea indartzeko diseinatua. Plan honek 11 erronka estrategikori heltzen die, eta, horien artean, talentu ekintzailearen harrobi sendo bat sortzea nabarmentzen da, Euskadiren hazkunde ekonomiko eta sozialean lagunduko duten profil berritzaileak identifikatzeko, garatzeko eta atxikitzeko.

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean espirtu ekintzailea sortzea apustu bat da oraindik ere, gazteei ekintzailetza-prozesu osoan lagunduko dien ekintzailetza-esperientzia praktiko bat erraztuz. Horregatik, jarraipena eman zaie 2023-2026 aldirako programa-kontratuei UPV/EHurekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin. Unibertsitatea+Enpresa+Gizartea programa-kontratu bat, kultura ekintzailea sustatzeko unibertsitate barruan eta kanpoan.



12. politika. Gazteen Enplegurako Talka Plana

Taula honetan, 2024an exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta gazte-enpleguarekiko konpromisoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

12. politika. Gazteen Enplegurako Talka Plana	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2024ko aurreikuspena (2)		2024ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Enplegurako prestakuntza duala (***)	*	11.990	*	12.682	*	11.287
Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-programak	14 M €	3.280	3 M €	756	3 M €	673
Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak (Beint, Global eta Global Training; nekazaritza eta arrantzako ikerketa; Novia Salcedo)	42 M €	1.936	13 M €	582	11 M €	518
Gazteak laneratzeko prestakuntza (**)	18 M €	2.728	5 M €	900	4 M €	801
Gazteen enplegu-programak (****) (Lehen Aukera, Errelebo Kontratua, gazteak laneratzeko ekintza berritzaileak; lehen esperientziak JPPn; eta Investigo programa)	65 M €	4.150	19 M €	1.132	17 M €	1.007
Gazteen ekintzailatza	23 M €	1.716	1 M €	399	1 M €	35512,
12. POLITIKA, GUZTIRA	162 M €	25.800	41 M €	16.451	36 M €	14.641

(*) Aurrekontua ez da sartu, LHko eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako.

(**) 2024an gauzatutako inbertsioen atalean ez dira sartu ikas-ekinezko prestakuntzako Hezibi programako langileen gastuak. Era berean, programa horren laneratzeko-tasa % 80koa izan da, hasieran aurreikusitako laneratzeko-tasa baino handiagoa.

(***) 2024an eta 2023an prestakuntza dualeko datuen igoera hain nabarmena izan da araubide orokorreko lanbide-heziketa duala ezarri delako 1. eta 2. mailetan. 2022ra arte, erregimen intentsiboan eta 2. mailako LHko duala baino ez zegoen ezarrita.

(****) Gazte-enplegu-programen betearazpen handia, besteak beste, aurrekontu-aurreikuspenean eta inpaktuan sartu gabeko programa berri batzuk kontuan hartzearen ondorio da. Programa horiek Administrazio Publikoetako Lehen Esperientziari eta Investigo programari dagozkie.

1. oharra: XII. legegintzaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpenarekin.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuen jatorria "210 Gainegiturak txostena - Enplegu Plana" da. 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da; ondoren sailek berrikusi eta eguneratu zuten aurreikuspen hori.

3. oharra: Kontuan hartu behar da hasierako aurreikuspenetan enplegurako prestakuntza-jardueretarako zenbatetsitako laneratzeko-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-gomendiotik eratorritakoa baino (% 45), eta hori aplikatu da azkenean 2024ko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.





ONDORIOAK



ONDORIOAK

- Berpiztu Programaren helburu nagusia da legegintzaldian zehar langabezia-tasa % 10etik beherakoa izatea. **2024ko azken lauhilekoan, langabezia-tasa % 7,1ekoa izan da, Eustaten arabera.**
- Berpiztu programak Jaurlaritzak onartutako aurrekontuetako inbertsioak jasotzen ditu. Ahalegin endogeno horri eta Next Generation Europako Funtsen inbertsioei esker, erronka digitalari, erronka energetikoari eta erronka sanitarioari aurre egiteko funtsezko proiektu eragileak abian jarri ahal izango dira. Datozen belaunaldientzat Euskadiren etorkizuna markatuko duten hiru erronka.
- Berpiztu Programaren barruan, bereziki nabarmentzen dira Enpleguaren Ardatzean garatutako jarduerak, bereziki honako programa hauek: ekintzailetza, enplegurako prestakuntza, laneratzeko programak eta tokiko eta eskualdeko enplegu-planak. Eraikin publikoak eta etxebizitza pribatuak birgaitzeko Renove programak. Onartutako lan-eskaintza publikoak eta gazte-enpleguaren talka-plana.
- **2024an, Berpiztu Programak 3.328 milioi euroko exekuzioa izan du,** aurrekontu-inbertsioa (2.277 milioi euro Ekonomia Suspertzeko Ardatzean eta 401 milioi euro Enpleguaren Ardatzean) eta inbertsio pribatua dinamizatzeko abal irekien lerroak (650 milioi euro) kontuan hartuta.
- Inbertsio horrek eragin positiboa izan du enpleguan, eta **48.942 enplegu berri sustatu ditu 2024an.** Era berean, **1.440 enpresa berri** sortzen lagundu da, eta **3.271 ETE industriali** lagundu zaie nazioartekotzen, berritzen, modernizatzen eta hedatzen.
- 2020-2024 egikaritze-urte guztietan, metatutako inbertsioa **14.958 milioi eurora iritsi da,** programa osorako **aurreikusitako inbertsio osoaren (13.250 milioi euro) % 113.**
- **2020-2024 aldian 193.307 enplegu sustatu dira,** horietatik 43.341 gazteak. Enpresei dagokienez, **6.079 enpresa berri** sortzen eta **12.971 ETE industrial nazioartekotzen,** berritzen, modernizatzen eta hedatzen lagundu da.

